

TITULO/TITLE: **Gabonetako bost kantak** Ref: CM.2.0069 (SA)
Compositor/Composer: Javier Jacinto Rial
Texto/Text: Popular
Idioma/Language: Euskera/Basque

1. ORRA ORRA

Zapata txuriyek paperez
Iauriya dekala, baterez;
Nagusi jaunari esango deagu
Asiko ote gaan ero ez.

Orra, orra gure Olentzero
Pipa hortziyen duela
Ixerita dago
Kaponak ere bai ta
Oilaskotxuekin
Biher merendatzeko
Botilla arduakin.

Olez, olez,
Bakallu jalez,
Bost eta sei hamaika
Txorixorik ez balin badago
Igual dela lukainka

2. OLENTZERO GURIA

Olentzero guria
Ezin degu ase,
Bakarrik jan dizkigu
Hamar zerri gazte,
Sahieski ta solomo
Tripazaiak haste;
Jesus jaio delako
Kontsola zatezte

Aspaldiko Olentzero,
Olentzero guria,
Ikazkille begi gorri,
Non duk Belengo haur hori?

Olentzero begi gorri
Iñun ikusi al duk,
Esan zaiguk,
Sehaskatxoan jarrita
Mariaren haur polita?

Ai Olentzero guria
Nun duk Belengo bidia?

3. UR GOIENA UR GORENA

Ur goiena, ur barrena
Urteberri egun ona,
Graziarekin osasuna
Pakearekin ontasuna,
Jaungoikoak dizuela egun ona

Damatxo gazte konponitua
Hoiak kolore gorriak
Zure mateilak iduritzentzaz
Klabelinaren orriak

Klabelinaren orriarekin
Arrosa maiatzekua
Hementxe gaude zure begira
Damatxo bihotzekua

4. Oh! GAUR ZORAGARRIA

Oh! Gau zoragarria
Oh! Gau zoragarria
Jesus Belenen jaio da
Bere bila gabiltza
Jesus Belenen jaio da
Etxe honetan sartuko balitz
Jesus Belenen jaio da

Belengo estalpean
Hotzez dardaraka
Ate irekiekin
Lasto artean dago haurra.

Oh! Gau zoragarria
Astoa eta idia
Bere ondoan daude
Beren arnasarekin berotzeko.

Belengo estalpean
Haurrak pozik barre egiten du
Belengo estalpean,
Belengo estalpean.